



UNIBERTSITATERA HAUTAPROBAK - INGELESA
U.S.H.aren ZUZENTZAILEI EMATEKO.
EBALUATZEKO IRIZPIDEAK.

Azterketak zuzentzen dituen Ingelese-Irakasleek ez du gainditu behar ariketa bakoitzari esleitu zaion puntuazioa. Kalifikazio osoa zerotik hamar-erainokoa (0-10) izango da.

1.- IN YOUR OWN WORDS AND BASED ON THE IDEAS FROM THE TEXT. ANSWER THE FOUR QUESTIONS. (4 marks).

Galderei eginiko lau erantzun hauetan testuko ideiak ulertzeko ahalmena eta ikasleak zuzentasunez adierazteko duen gaitasuna neurtu nahi dira. Esaldiek osoak, zuzenki eratuak eta lotura sintaktiko egokiz lotuak izan behar dute. Beti ere testuan ongi oinarrituak izango dira. Erantzutean nolabaiteko sormen-askatasuna onar daiteke. Ez da inoiz hitzez hitzeko kopia hutsa izango, ez eta esangurik gabea edo aditz edo klausula egoiekin loturarik izan gabea ere. Ulermena % 50raino balioets daiteke, adierazteko moduari beste % 50^a emanik.

2.- ARE THE FOLLOWING STATEMENTS TRUE OR FALSE? SAY WHY. TAKE EVIDENCE, EVEN QUOTING, FROM THE TEXT TO SUPPORT YOUR ANSWER. NO MARKS ARE GIVEN FOR ONLY TRUE OR FALSE. (2 marks).


TRUE or FALSE delako erantzuna behar den justifikaioaz lagundurik jarri beharko da. Hau bitara egin daiteke. Ikasleek, testuan oinarria harturik, erantzuna bere hitzekin justifika dezake, edota testuko esaldia bereziki aipatuz edo komatxo artean jarritz. Erantzun bi-biak balio berekoak izango dira. Erantzunean erabiliriko esaldiek osoak izan beharko dute, edota behar bezala elkarlotuak, komatxo artean aipaturikoa zuzenki txertatzeko. Ez du balio izango TRUE edo FALSE hutsa idazteak.

3.- VOCABUKARY. FIND FOUR SYNONYMS IN THE TEXT THAT HAVE A SIMILAR MEANING. (0'25 each). (1 mark).

Ariketa honetan ikasleak ingeles lexiko edo terminologia noraino dakien neurtu nahi da. Lau sinonimo, definizio, esaldi etab. eskaintzen dira eta ikasleak horietako bakoitzak testuan esangura hori duen bitza aurkitu behar du. Aditza bada, testuan ageri den aldi berean jokaturik jarri beharko da. Hitz bakoitzak 0'25ko kalifikazioa dauka eta guztiek mark 1 osatzen dute.

4.- WRITE A COMPOSITION IN ENGLISH OF ABOUT 130 WORDS. CHOOSE ONE OF THE TWO TOPICS. (3 marks).

Ikasleak gai bakar bati buruz idatzi behar du. Askatasun osoa dauka idazteko eraz (kontakizuna, gutuna, egiazko zein asmatuiko egoera, etab.). Honetan garrantzi handiagoa du adierazteko moduak gai berezi horretaz dakienak baino. Idatzizko adierazkortasuna ebaluatu eta ikasleek beren ideak egituratu eta ingelesez adierazpen egokia emateko duten ahalmena neurtu nahi da. Jarraibide giza, balioesteko orduan, ondokoak eduki daitezke kontuan: gramatikazko egitura eta sintaxia (1 mark), koherenzia eta kohesioa (1 mark) eta lexiko aberastasuna (1 mark). Kalifikatzeko orduan, objektibotasuna eta eskuzabaltasuna izango dira irizpide nagusiak. Aipaturiko puntu horietan zerbait baliagarririk badu, jar bekio puntuazioan zerbait, eta ez zero hutsa. Bazterrean ariketa bakoitzaren puntuazioa adierazi behar da. Epaimahaietan beti egoten dira bina zuzentzaile. Zalantzarik izainez gero, elkarri galde egin diezaiokete, horrela biek ebaluazio-irizpide berberak aplikatu ahal izateko.


Gasteizen eta Bilbon

Sinaturik: José Miguel Santamaría
Ángel San Vicente Marañón
USHetako Ingeleserako koordinatzaileak